



# ITZULPENAK ONDO EGITEKO

Itzulpenak erosteko gida





**Hizkuntzalaria ez denari  
etsigarria gerta dakioke  
itzulpenak egitea.**



**Gida honetan buruhauste  
horiek gutxitzeko  
proposamenak jasoko  
ditugu.**

## DERRIGORREZ ITZULI BEHAR DA?

Dokumentuak itsu-itsuan eta pentsatu gabe itzuli beharrean, **jarri bezeroarekin harremanetan eta aukeratu beharrezkoa den informazioa**. Betegarri gisa erabili den informazioa, agurrak eta produktuan lan egin duten departamentu guztien izenak esaterako, alde batera utz daitezke gehienetan. Bezeroak ez du informazio hori eta ez du behar. Are gehiago, era horretako informazioa eragozpena izaten da askotan.

1.999an, Espainian, ekonomiaren alorreko enpresa batek itzulpena egin eta 230 hitzetara ekarri zuen 500 hitzeko eskuliburu bat. Itzulpenak hasi aurretik, itzultzaileak ezabatu egin zituen atzerriko bezeroei aplikatu ezin zitzaizkien atalak eta alferrikako datuak.

Madrilgo abokatu talde bat sarri elkartzen da itzultzaile japoniar batekin, japonieraz dauden dokumentuak ahoz itzultzeko. Itzuli beharreko puntu garrantzitsuak identifikatzen dituzte bi aldeen artean.

**Beharrezkoa den informazioa itzuli edo jatorrizko dokumentua laburtu eta berau bakarrik itzuli.**

# **HITZAK BAINO ASKOZ ADIERAZGARRIAGOAK DIRA MARRAZKIAK**

**Mapa, diagrama edo antzeko baliabideak hitzeko deskripzio zabalak baino argigarriagoak izan daitezke nazioarteko irakurleentzat.** Itzultzaileari ere lana errazten dio, akatsak egiteko aukera txikiagoa delako. Horretaz gain, itzulpenaren aurrekontua ere baxuagoa izango litzateke kasu gehienetan.

Aireportuetan esate baterako, milaka pertsona mugitzen dira alde batetik bestera piktograma eta seinaleek gidaturik.

**Idatzizko dokumentua beharrezkoa denean edo azalpena emateko modurik egokiena denean bakarrik erabili.**

**Zertan bereizten dira  
itzulpena eta  
interpretazioa?**

**Itzulpena idatzizkoa  
da, interpretazioa,  
berriz, ahozkoa.**

## “NAZIOARTEKO” IKUSKERA HASIERATIK

Itzuri klixe kulturalak, zentzugabeak izan daitezke nork bere herriko kirolari buruzko erreferentziak emateko. Baita literatura eta kultura metaforak ere. Giza gorputzari buruzko aipamenak egiterakoan kontu handiz ibili, kultura batetik bestera horien adiera asko aldatzen baita.

**Idatzizko dokumentuetan ez erabili norbere kulturako esamolde edo adierazpenik.** Oso litekeena baita beste kultura batean esanahi kulturala barik, interpretazio literarioa egin eta gaizki ulertuak sortzea.

**Zure kulturako adierazgarri den hizkuntza erabili nahi izanez gero, kontuz ibili eta beste herrialde batzuetan ulergarria eta itzulgarria izango dela ziurtatu. Idatzizko dokumentuetan erabili nazioarteko telefono eta fax kodeak.**



## ZENBAT KOSTATUKO LITZATEKE?

Itzulpenen prezioak 1etik 10era bitartekoak izan daitezke. **Prezio garestia eskaintzeak ez du ziurtatzen itzulpena kalitatezkoa izango denik.** Aldiz, **prezio jakin batetik behera ezinezkoa da ia kalitatezko itzulpen bat jasotzea.** Itzultzaile baten soldata oso baxua baldin bada, lana egiteko esfortzua ere horrenbestekoa izango da. Izan errealista. Zenbat orri itzul ditzake itzultzaile batek ordu batean? Zenbat denbora nahi duzu ematea zure dokumentua itzultzeko? (zenbat denboran egin du zure enpresak jatorrizko testua?).

Itzultzaile bat aukeratzerakoan, kalkula ezazu zenbat diru gastatu eta zenbat denbora igaro duzun nazioarteko merkatuan zabaldu nahi duzun produktua egiteko. Itzultzaile profesional bati ordaindu ezin badiozu, litekeena da zure enpresa nazioarteko merkatuan lehiatzeko prest ez egotea.

**Itzulpen enpresa batek ematen duen balio erantsia (itzultzaile egokia aukeratzea, proiektua kudeatzea, kalitate kontrola, eta abar) ordaindu egin behar da baina zure enpresarentzat ordu askoko lana aurrezteka izan daiteke.**

## NOLAKO GARRANTZIA DU ESTILOAK ?

**Testuaren helburuaren arabera estiloa ezberdina izango da.** Estiloa erabat ezberdina izango da ume batentzako testu batean eta gaian espezializatua den pertsona batentzako testuan. Era berean, estilo ezberdina erabiliko dugu pertsona bati edo pertsona talde bati zuzentzen gatzaizkionean.





Espezialistek, **“informatzeko”** eta **“argitaratzeko”** lanak bereizten dituzte itzulpenetan. Biak dira itzulpen zehatzak. Hala ere, **“informatzeko”** lanak azkarrago egiten dira eta azken zorroztasuna falta dute. Beraz, zure enpresaren helburua konbentzitzea bada eta itxura garrantzitsua baldin bada, **“informatzeko”** lanak ez dira nahikoa izango.

# **NORK BERE KABUZ EGITEKO TENTALDIARI EUTSI**

Hitz egitea eta idaztea ez dira gauza bera. **Ahozko hizkuntza maila altua izateak ez du ziurtatzen idatzizko hizkuntza gaitasun onik.** Gaztelania, Frantsesa edo Ingelesa egunero erabili eta hizkuntza horien jatorrizko lurraldeetan denbora asko igaro arren, kasuen %99an idazteko teknikan antzeman egiten da hiztuna atzerrikoa dela. Hori guztia garrantzitsua izan daiteke, edo ez.

Bi egoeratan ez da garrantzitsua izango; (1) enpresaren salmenten aspekturik indartsuena prezioa denean (prezioan kontzentratzen diren erosleek ez diote itzulpenaren profesionaltasunari begiratuko, oinarriko datuak ulertzearekin konformatuko dira) edo (2) atzerriko ezaugarri bat nabarmendu nahi denean.

**Enpresaren helburua nazioarteko irudia ematea baldin bada, utzi alde batera ezaugarri kulturalak. Kultura askotan, jatorrizko hizkuntza erabiltzea ez da erakargarria eta iraingarria suerta daiteke.**

# JATORRIZKO TESTUA AMAITU ITZULPENA HASI AURRETIK

Itzulpena jatorrizko dokumentua amaitu aurretik hasteak lanean denbora gehiago igarotzea eta kostua handiagoa izatea ekarriko digu (helburua dirua aurrezteka izan arren). Are gehiago, lan batean hainbat bertsio baldin badaude, akats gehiago egin daitezke eta.

**Baina batzuetan ez dago beste aukerarik. Itzulpena entregatzeko epeak hain dira estuak, jatorrizkoa bukatu baino lehen hasi behar dugu itzultze lana. Kasu horietan, lan guztien bertsioak eta datak zehaztu eta bertsio batetik bestera dauden aldaketak azpimarratu behar ditugu.**



# ORDENAGAILU PROGRAMEN BIDEZ EGINDAKO ITZULPENAK

Itzulpena egiteko denbora gutxi izanez gero, metodo hau lagungarria izan daiteke **itzultzailearen erabilera pertsonalerako**. Azkarra eta merkea da. Baina arau orokor bezala, bezeroak eskatu ezean, ez erabili ordenagailuak egiten dituen itzulpen automatikoak lanak egiteko. Ez da gomendagarria kalitateari dagokionez.

Metodo hori erabiltzea eta ondoren itzultzaile batek zuzenketak egitea izan daiteke aukeretako bat. Hala ere, itzultzaile gehienak ez daude prozesu honen alde. **Ordenagailu programen bidez egindako itzulpenak hain dira eskasak, zuzentzaileek denbora gehiago behar izaten dute zuzenketak egiteko itzulpena hasieratik egiteko baino.**

**Itzulpen enpresa batzuek programa bereziak garatu dituzte itzulpenak egiteko. Programa horiek edonoren eskura dauden programak baino hobeak dira baina erabiltzeko ordaindu egin beharko dugu. Horrezaz gain, eta lanaren kalitatea hobea izan arren, beharrezkoa izango litzateke itzultzaile batek lana zuzentzea.**

2000. urtean, **Wall Streeteko** aldizkari ofizialak azterketa bat egin zien sareko doako bi itzulpen zerbitzu automatikori. Ateratako ondorioa honako hau izan zen: "**Itzulpen hauek egokiak dira bidaiarientzat edo atzerriko familiarterko baten eskutitza itzultzeko, baina merkataritza munduko edo testu zehatzak itzultzeko ez du balio**". (A Closer Look, 10/00)

# ITZULTZAILEAK ZERTARAKO JAKIN BEHAR DU TESTUA

Hitzaldi bat egitea eta web orri bat egitea ez dira gauza bera. Grafiko baten izenburua idaztea eta zirkulazio seinale bat idaztea ere ez dira gauza bera, eta hari beretik, egunkari bateko albistea eta aldizkari bateko erreportajea ere ezberdinak dira.


Estiloa, aukeraturiko hitzak, esaldien egitura eta luzera aldatu egiten dira batetik bestera. **Testuinguruaren eta helburuaren arabera testuak ezberdinak izango dira.** Itzultzaile profesional batek datu horiek galdetuko dizkizu, beraz ziurta zaitetz zuk zeuk ere argi dituzula.

**Ziurtatu itzultzaileak dokumentuaren testuingurua eta helburua dakizkiela. Horiek horrela, ezarritako helburuak betetzeko testu eragingarriena idatziko du.**

# IRAKASLEAK ETA IKASLEAK ARRISKUTSUAK DIRA

Atzerriko testu asko dituzten zenbait enpresak ikastola eta unibertsitateei eskatzen diete itzulpena egiteko. Testua “argitaratu” behar ez denean, baliabide hori egokia izan daiteke baina alderantzizko kasuetan oso arriskutsua izan daiteke. Atzerriko hizkuntza bat irakastea oso lan zaila eta trebetasun zehatz batzuk behar dira. Trebetasun horiek ez datoz bat itzultzaile batek izan behar dituenekin, beraz zaila da irakasle batek itzulpen on bat egitea. Akatsak are ugariagoak izango dira itzulpena ikasle batek egiten duenean.

**Galdera: Eskatuko zenioke enpresa-zientziak ikasten ari den ikasle bati zure enpresako komunikatu ofiziala itzultzeko?**



# ITZULTZAILE PROFESIONALEK BERAIEN JATORRIZKO HIZKUNTZARA ITZULTZEN DUTE

Zure lana japonierara edo txinerara itzuli nahi baduzu, jo ezazu japoniar eta txinatar itzultzaile batengana. Bezeroak horrelakorik ez jakitea oso ohikoa da. Baina itzultzaileak arau hori ez betetzeak zalantzan jartzen du beste arau batzuetan izango duen jarrera eta ondorioz bere lanaren bermea ere zalantzazkoa izango da.

**Dena den, arau hori hausten duten salbuespenak ere badaude. Horrelakoetan, eskatu itzultzaileari lehen egindako lanen bat, kalitatezkoa dela ziurtatzeko. Hori egin ondoren eta lana amaitua dagoenean, berrius dezala testua itzulpenean erabilitako hizkuntza jatorrizkotzat duen pertsona batek.**



# ZEIN HIZKUNTZATAN MINTZATZEN DA IRAKURLEA

Gaztelania Madrilgo edo Mexikoko bezeroentzat? Ingalaterrako edo AEBetako Ingelesa? Bildu atzerriko bezeroekin zer behar duten jakiteko. Erregistroa ere garrantzitsua da. Alemaneraz egindako testua sendagileentzako edo gaixoarentzako da? 3. munduan oinetako garbitzaileak saltzea ala Luxenburgon dirua inbertitzea, zein da helburua?

**Irakurlearen hizkuntza hitz egin. Jarri irakurlearen lekuan eta ez arduratu zure produktuak beraiengan izan dezakeen alde onarengatik. Zehatza izan.**



# ITZULTZAILEAK JAKIN-MINA IZATEA ALBISTE ONA DA

**Inork ez du zure testua itzultzaileak bezain zehatz irakurriko.** Itzulpena egiten duen bitartean, itzultzaileak azalpenen beharra duten puntuak antzemango ditu. Irakurketa sakon jatorrizko testua hobetzeko hori balia genezake.

“Itzultzaileak testua itzuli arte ez dugu jatorrizko testua inprimatzera bidaltzen”, dio Parisko banketxe bateko buruak. “Arrazoa sinplea da: beraiek lana sakon aztertzen dute eta akatsak identifikatzen laguntzen digute.”

**Itzultzaile profesionalek jatorrizko lana guztiz eransten eta sinplifikatzen dute ondoren testu berria xede-hizkuntzan idazteko. Itzultzaile onak galdera asko egiten dizkio bere buruari lan berria sortzen ari den bitartean.**

## **LANA ZENBAT ETA TEKNIKOAGOA, ITZULTZAILEAK ORDUAN ETA ADITUAGOA IZAN BEHAR DU ARLO HORRETAN**

Bost laguni oinarrizko datu batzuk eman eta beraien jatorrizko hizkuntzan 100 hitzeko testu bat idazteko eskatzen badiegu, bost testu ezberdin jasoko ditugu. Batzuk besteak baino argiagoak edo teknikoagoak izango dira. Gaitegiaren berri dutenek testu zehatz eta hobeak idatzi ahal izango dituzte.


Gauza bera gertatzen da itzultzaileekin ere. **Itzultzaile batekin epe luzean eta etengabe lan eginez gero, emaitzak hobeak izango dira.** Zenbat eta beraiekin lan gehiago egin hobeto jakingo dute enpresaren filosofia, estrategia eta eskainitako produktuen berri. Ondorioz itzultzen dituzten testuak ere eragingarriagoak izango dira. **Ahal den neurrian ezagutu ezazu zure lanak egiten dituen itzultzailea eta hark ere ezagut zaitzala zu.**

**Komunikatu itzultzailearekin. Eroso egon behar dute esku artean duten lanarekin. Bestela aldatu itzultzailea. Lan egiten ari den bitartean, itzultzaileak ez luke aztergai duen gaiari buruz ezer ikasi behar.**

# AMAIERAKO ITZULPENA ITZULTZAILE BATEK ZUZENDU BEHAR DU BETI

Ez dio axola itzulpena nork egin duen. Itzulpenari azken uneko aldaketak (izenburuak, hitzak) egitean itzulpena akatsez bete daiteke.

**Egin beharreko aldaketa guztiak jaso ostean, itzultzaile profesional batek gainbegiratu behar du lana, egindako aldaketek itzulpena okertu ez dutela ziurtatzeko.**



# TIPOGRAFIA ALDATU EGITEN DA HIZKUNTZA BATETIK BESTERA

Enpresa askotan ez dakite hizkuntza bakoitzaren tipografiari eustea nolako garrantzitsua den eta atzerritik jasotako testuak beraien hizkuntza tipografiara moldatzen dituzte. Frantsesek adibidez, hutsune bat usten dute hitz baten ondoren bi puntu jarri aurretik. Alemanek izenak letra larriz idazten dituzte. Espainian eta Frantzian, hilabeteak eta asteko egunak letra xehez idazten dira. Gaztelaniaz esaterako, ezin dugu “ñ”-ren lekuan “n” idatzi.

Gaztelaniazko izenburu bat idaztean “ñ”-ren ordez “n” idatzi zuten behin eta ingelesera itzultzean hau izan zen emaitza: “ELECTORAL BELL” (“CAMPANA”), “ELECTORAL CAMPAIGN” (“CAMPAÑA”)- ren ordez.

Idazterakoan akatsak txikia dirudi baina emaitza guztiz okerra izan daiteke. Errespetatu hizkuntza bakoitzaren tipografia.

# ITZULTZAILEA ETA ELEBIDUNA IZATEA EZ DIRA GAUZA BERA

Beste ezer baino lehen, **itzultzailea maila altuko idazlea da**. Xede-hizkuntzan irakurtzeko aproposak diren testuak idazteko gai dena. Oro har, etorria dute jatorrizko hizkuntzan mintzatzeko. Jatorrizko hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren arteko zubi egokiena itzultzaileak dira. **Jatorrizko hizkuntzan idatzitako testua, estilo eta terminologia aproposa erabilia alda dezakete xede-hizkuntzara.**

Elebiduna izatea ez da gauza bera. Elebiduna gai da bi hizkuntzatan mintzatzeko, baina ez du zertan testu bat itzultzeko gai izan.

**Elebidun izateak ez du ziurtatzen itzulpen bat egiteko gaitasuna duenik.**

## Hedatutako mitoa: **“HITZ TEKNIKOEK ARAZO GUTXI SORTZEN DITUZTE”**

Zoologia, botanika eta antzeko eremuetan erabiltzen den terminologia zientifikoa oso zorrotza eta nazioartekoa da. Tankera horretako testuak jatorrizko hizkuntzan idazten dituztenek ere akats ugari egiteko arriskua dute; sinonimo gehiegi erabili edo aldaketa arraroak egiteko arriskua. Itzultzaile teknikoak argi ibili behar du itzulpena egiterakoan, eta itzulpena jatorrizkoa bezain ondo (edo hobeto) dagoela ziurtatu behar du. Askotan jatorrizkoa zuzenagoa izaten da itzulpena, espezialista batek ere zuzentzen duelako.

Terminologia okerra erabiltzeak lana itzultzailearen gaitasunetik kanpo dagoela adierazten du. **Gaian aditua den pertsona bati terminologia teknikoa azaltzeko eta itzulpena hark egiteko eskatzea izango litzateke egokiena.**

**Lana bukatutzat eman baino lehen, itzultzaile profesional batek gainbegiratu behar du beti. Testua idatzi dutenek erabili duten hizkuntza beraien jatorrizko hizkuntza ez bada, zuzentzea ezinbestekoa da, testuaren gramatika, sintaxia eta estiloa zuzenak direla ziurtatzeko.**

## ITZULTZAILEA AUKERATZEA

### **Aukeraturiko itzultzaileak nolako lanak egin ditzakeen jakin behar dugu.**

Eskatu itzultzaileari lehenago egin duen lanen bat. Ez bakarrik norentzat egin dituen galdetu, eskatu testuak.

Esate baterako, web orriak itzuli badituzte, eskatu helbidea. Itzultzaileak urteak badaramatza itzulpen lanak egiten eta inolako lanik erakutsi ezin badizu, arazo larri bat duzu (itzultzaileak ere bai). Itzultzaileari jakinarazi itzultzen duen dokumentuarekin batera bere argazkia eta datuak azalduko direla.

**Itzultzailearen erreferentziazko datuak zure lanean azaltzeak ez du gastu ekonomikorik eta itzultzailea lana ahalik eta ondoen egitera bultzatuko du. Oharra: Itzultzaileak amaierako froga-agiri bat eskatuko dizu iruzurrez babesteko. Denon onerako izan daiteke, beraz baietz erantzun.**





**Planifikatu:** zure enpresaren helburuetako bat nazioarteko merkatura zabaltzea baldin bada, hasi orain itzultzaile bila. Era horretan, itzulpenak egiteko garaia heltzen denean itzultzaileak behar beste denbora izango du lana ongi egiteko.

**Kontrola daitekeena kontrolatu:** egin ezazu enpresarako glosario bat. (Jatorrizko testua sendotzeko modua izan daiteke). Jarri lanean enpresako langile eta itzultzailearekin ele bitan bertsio bat sortzeko.

**ZALDI IRABAZLEA LASTERKETA BAKOITZERAKO**

Nolako itzulpena behar duzu; informatiboa, makina baten itzulpena, argitaratzeko testua? Lana serioa eta garrantzitsua den jakiteko modu bat irakurle kopurua zenbatzea da. Nazioartean zabalduko da edo enpresako langileriarentzat izango dago? Nola eragingo lioke erdi mailako itzulpen batek zure enpresaren irudiari? Zure enpresaren web orria itzultzen lan ona egin zuen itzultzaileak ez du zertan baliagarri izan behar beste tankera bateko lan bat egiteko. Zenbat diru erabil zenezake itzultzeko?

**Itzulpen industria oso zabala da, baita kalitate oneko eta eskaseko lanak egiten dituzten itzultzaileen merkatua ere.** Horiek jarritako prezioa ere merkatua beste da zabala.

**Aldizkari garrantzitsu batean argitaratuko den lanak kalitate oneko itzulpena izan behar du. Bestalde, enpresa barruko departamentuetan banatuko den dokumentu batek ez du horren zorrotza izan behar.**

## PARTE HARTU EGIN BEHARREKO LANEAN

**Itzulpenetan akatsak egiteko modu onena arduragabe jotzea da.** Itzultzaileari lana zertan datzan azaltzeko ardura hartu ezean, nekez jasoko dugu esperotako emaitza. Agian 10 minutu baino gehiago beharko dituzu lana azaltzeko, baina pertsona egokiak azalpen egokia eman ez gero, ziurrenik dirua aurreztu eta etorkizuneko hainbat buruhauste saihestuko duzu.

Institute of Translation & Interpreting  
Fortuna House, South Fifth Street, Milton Keynes, MK9 2EU.

CILT The National Centre for Languages  
20 Bedfordbury, London WC2N 4LB

Société Française des Traducteurs  
22, rue des Martyrs, 75009 Paris, France

Jatorrizko testua: Chris Durban

**Itzultzailea: GoiHata SL**

**Itzulpen bat egiterakoan mila arazo sor daitezke:** epeak ezin betetzea, ordenagailuko itzulpenak gaizki erabiltzea, jatorrizko hizkuntza dakien norbaitek zuzenketarik ez egitea, koordinazio falta, bere kabuz lan egiten duen itzultzaile baten lan traketsa, itzulpen agentziaren lan traketsa, eta abar.

**Gida honetan aipatutako aholkuen erdiak betez gero, itzulpen egokia jasotzeko aukera gehiago izango dituzu.**